



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko maiatzaren 22a

73. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- 11-24/PES-00100. Galdera, Maristen orubeko babes ofizialeko etxebizitza baten eskatzaileei eskatutako informazioari eta betekizunei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 11-24/PES-00101. Galdera, Eskubide Sozietako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariaren eta Gaztela-Mantxako haren homologoaren arteko bilerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- 11-24/PES-00102. Galdera, kulturaren, kirolaren eta turismoaren arloan Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako udalen arteko lankidetzaren sendotzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- 11-24/PES-00103. Galdera, Instituto Navarro de Inversiones, SL sozietate publikoa eratzearen baimentze-espeditetari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- 11-24/PES-00104. Galdera, Nafarroan alboko esklerosi amiotrofikoa duten pertsonen arreta integrala dela-eta 2021eko azaroan onetsi zen mozioa betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- 11-24/PES-00105. Galdera, Gizain fundazio publikoan ordainsarien igoera gelditzeko arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- 11-24/PES-00106. Galdera, Nafarroako Gobernu departamentuek edo/eta enpresa publikoek enpresa jakin batzuekin kontratu-harremanik izan ote duten jakitekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- 11-24/PES-00107. Galdera, jakitekoa ea zergatik geratu ziren 25 pertsona ostatura sartu ezinik 2024ko otsailaren 20tik 21erako gauean. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- 11-24/PES-00108. Galdera, PETERako irisgarritasun-arazoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- 11-24/PES-00109. Galdera, Nafarroako Ubidearen 2. fasearen eraikuntzarako egiteke dauden izapideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- 11-24/PES-00110. Galdera, 2023ko aurrekontuetatik 397.649 euroko unibertsitate-bekak itzultzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- 11-24/PES-00111. Galdera, Nafarroako Ubidearen 2. fasearen finantzaketa-hitzarmena sinatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- 11-24/PES-00112. Galdera, Nafarroako Ubidearen 2. fasearen hitzarmen ekonomiko-finantzarioa amaitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).

- 11-24/PES-00113. Galdera, Nafarroako Ubidearen 2. fasearen hitzarmen ekonomiko-finantzarioa sinatu aurreko bideragarritasun-azterketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- 11-24/PES-00114. Galdera, Nafarroako Ubidearen 2. fasearen proiektua udaletako iragarki-oholetan paratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- 11-24/PES-00115. Galdera, Nafarroako Ubidearen 2. fasearen proiektua nork bere iragarki-oholean paratu izanaren ziurtagiria udalei eskatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- 11-24/PES-00117. Galdera, 2024ko aurrekontuetan aurreikusitako hiriarteko garraiorako inbertsioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- 11-24/PES-00118. Galdera, udalek eta erabiltzaileek garraioaz eta Nafarroako Gobernuak eginiko inbertsioaz duten iritzia buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- 11-24/PES-00119. Galdera, Erromar Soluciones Digitales SL enpresarekin izandako elkarrizketei edo sinaturiko kontratuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- 11-24/PES-00120. Galdera, MTM 180 Capital SL enpresarekin izandako elkarrizketei edo sinaturiko kontratuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- 11-24/PES-00121. Galdera, World Magic In the Villages SL enpresarekin izandako elkarrizketei edo sinaturiko kontratuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- 11-24/PES-00122. Galdera, Brama Capital SL enpresarekin izandako elkarrizketei edo sinaturiko kontratuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- 11-24/PES-00123. Galdera, Future Factory SL enpresarekin izandako elkarrizketei edo sinaturiko kontratuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- 11-24/PES-00124. Galdera, Logística Comercial Montelimar SL enpresarekin izandako elkarrizketei edo sinaturiko kontratuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (37. or.).
- 11-24/PES-00125. Galdera, DeLuxe Fortune SL enpresarekin izandako elkarrizketei edo sinaturiko kontratuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (41. or.).
- 11-24/PES-00126. Galdera, Duda Reasonable SL enpresarekin izandako elkarrizketei edo sinaturiko kontratuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (44. or.).
- 11-24/PES-00127. Galdera, Grupo Aurum Inversiones SL enpresarekin izandako elkarrizketei edo sinaturiko kontratuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (47. or.).
- 11-24/PES-00128. Galdera, Business City SL enpresarekin izandako elkarrizketei edo sinaturiko kontratuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (50. or.).
- 11-24/PES-00129. Galdera, Proyectos Independientes GEMS II SL enpresarekin izandako elkarrizketei edo sinaturiko kontratuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (54. or.).
- 11-24/PES-00130. Galdera, Soluciones de Gestión y Apoyo a Empresas SL enpresarekin izandako elkarrizketei edo sinaturiko kontratuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (57. or.).
- 11-24/PES-00131. Galdera, postu itunduak dituzten zahar-etxeetan arrazakeriagatiko lan-diskriminazio egintzak izateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (60. or.).
- 11-24/PES-00132. Galdera, Larrabide estadioan atletismoko modulu estalia eraikitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (62. or.).

F saila:
GALDERAK

11-24/PES-00100. Galdera, Maristen orubeko babes ofizialeko etxebizitza baten eskatzaileei eskatutako informazioari eta betekizunei buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak Maristen orubeko babes ofizialeko etxebizitza baten eskatzaileei eskatutako informazioari eta betekizunei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko martxoaren 1eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularrari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-24/PES-00100). Hona hemen galdera horrek dioena:

– Zer informazio eta irizpide eskatu zizkieten Nafarroako Gobernuak eta NASUVINSAK Maristen orubeko babes ofizialeko etxebizitzaren eskatzaileei etxebizitza bat eskatzeko?

Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketa-

ko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuak etxebizitza babestu bat eskatu duten pertsona guztiei honako hau eskatzen die, hautatu duten sustapena gorabehera:

1. Bete ditzatela etxebizitza babestu bat eskuratzeko eskatzen diren legezko baldintzak, eta zehazki Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 17. artikuluan ezarritakoak eta Etxebizitza babestuaren eskatzaileen zentsua arautzen duen martxoaren 28ko 25/2011 Foru Dekretuan garatutakoak (II. kapituluan —Etxebizitza babestuak eskuratzeko baldintzak—, 1. atalean —Eskuratzeko betekizun orokorrak—).

2. Etxebizitza babestuaren eskatzaileen zentsuan izena ematean dagokion eskuratzeko baremoan puntuazioa eskuratzeko eskubidea ematen duten inguruabarrak (alegatu direnak) egiaztatzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18an

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

11-24/PES-00101. Galdera, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariaren eta Gaztela-Mantxako haren homologoaren arteko bilerari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariaren eta Gaztela-Mantxako haren homologoaren arteko bilerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko martxoaren 1eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak 11-24/PES-00101 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako, Ekonomia

Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak ematen dion informazioa:

Gaztela-Mantxako Gizarte Ongizaterako kontseilariarekin izandako bilera ez da beste autonomia erkidego batzuekin izandako harreman txanda baten baitan kokatzen. 11-24/PEI-00201 galderari emandako erantzunean adierazi zen bezala, Gaztela-Mantxako kontseilariarekin bilera egiteko eskaera egin zen eta eskaera horretan bi autonomia erkidegoei eragiten dien gaiak jorratu ziren eta bi erkidegoetan gauzatzen ari diren proiektuak eta ekimenak trukatu ziren.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko martxoaren 14an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-24/PES-00102. Galdera, kulturaren, kirolaren eta turismoaren arloan Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako udalen arteko lankidetzaz sendotzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak kulturaren, kirolaren eta turismoaren arloan Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako udalen arteko lankidetzaz sendotzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko martxoaren 1eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-24/PES-00102). Hona hemen galdera horrek dioena: Nafarroako Gobernuak Nafarroako alkateekin (hala nola Tuterakoa, Tafallakoa, Lizarrakoa eta Zangozakoa) biltzea aurreikusten al du kulturaren, kirolaren eta turismoaren arloko lankidetzaz ildoak indartzeko?. Horren harira, Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Turismo kontseilariak honako honen berri ematen du:

Nafarroako Gobernuak bilerak egin ditu Nafarroako udalerrietako hainbat alkatearekin. Legegintzaldiaren hasieratik eta Gobernu Irekia webgunearen bidez agenda publikoa kontsultatu daitekeen egunera arte, honako bilera hauek egin dira:

- Ostirala, 2023ko irailaren 29a, Uharteko alkatearekin.
- Astelehena, 2023ko urriaren 2a, Martzillako alkatearekin.
- Asteartea, 2023ko urriaren 24a, Tafallako alkatearekin.
- Asteartea, 2023ko urriaren 24a, Leitzako alkatearekin.
- Asteartea, 2023ko azaroaren 7a, Erronkariko Udalarekin.
- Asteartea, 2023ko azaroaren 21a, Tuterako Udalarekin.
- Astelehena, 2024ko urtarrilaren 8a, Irunberriko alkatearekin.

– Asteartea, 2024ko urtarrilaren 9a, Buñuelgo alkatearekin.

– Asteartea, 2024ko urtarrilaren 9a, Luzaideko alkatearekin.

– Ostirala, 2024ko urtarrilaren 19a, Lizarrako Udalarekin.

– Astelehena, 2024ko otsailaren 19a, Iruñeko alkatearekin.

Otsailaren 19tik aurrera egindako bilerak Gobernu Irekia webguneko agenda publikoan kontsultatu daitezke.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko martxoaren 15ean

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebecca Esnaola Bermejo

11-24/PES-00103. Galdera, Instituto Navarro de Inversiones, SL sozietate publikoa eratzearen baimentze-espeditari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Instituto Navarro de Inversiones, SL sozietate publikoa eratzearen baimentze-espeditari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko martxoaren 1eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko galdera egin du —2024ko otsailaren 26ko 1661 irteera zenbakia du Nafarroako Parlamentuan— “Instituto

Navarro de Inversiones SL” deritzon sozietate publikoari buruzko informazioa eskatzeko (11-24/PES-103). Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Otsailaren 26an, erantzuna bidali zitzaion Cristina López Mañero andreari, (11-24/PES-00063) eskaeraren harira. Horren edukia orain eskatu denaren berdina zen.

Hortaz, erantzuntzat jo da galdera hau, eta aipaturiko (11-24/PES-00063) eskaeran egindako erantzuna irakurritzat jo da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

11-24/PES-00104. Galdera, Nafarroan alboko esklerosi amiotrofikoa duten pertsonen arreta integrala dela-eta 2021eko azaroan onetsi zen mozioa betetzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak Nafarroan alboko esklerosi amiotrofikoa duten pertsonen arreta integrala dela-eta 2021eko azaroan onetsi zen mozioa betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko martxoaren 1eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko martxoaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentuko taldeko Leticia San Martín Rodríguez foru parlamentari txit prestuak idatziz erantzuteko galdera egin du, Nafarroan alboko esklerosi amiotrofikoa duten pertsonentzako arreta integralari buruzko mozioa betetzeari buruz (11-24/PES-00104). Hona hemen Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak eta Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak horri buruz ematen dioten informazioa:

1. Besterik gabe bete ditzan Nafarroako Paziente Kronikoari eta Pluripatologikoari Arreta Emateko Estrategiaren baitan alboko esklerosi amiotrofikoa duten pertsonen arretarako dokumentuan jasotako prestazio eta konpromiso guztiak.

"Neurodegeneratiboak" profila, zeinak alboko esklerosi amiotrofikoaren diagnostikoa duten pertsonak barne hartzen baititu, Paziente Kronikoari eta Pluripatologikoari Arreta Emateko Estrategiaren esparruan ezarri zen Nafarroan, alegia, 2019ko ekainean.

Nafarroako erreferentziako unitatea Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan dago 2007tik. Diziplina anitzeko unitatea arlo hauetako profesionalek osatzen dute: Neurologia, Erizaintza, Gizarte Lana, Nutrizioa, Pneumologia, Etxeko Arretako Euskarri Taldea (EAET), Arreta Psikosozialeko Euskarri Taldea (APET) eta Neurofisiologia. Horrez gain, zerbitzu hauen laguntza dute, beharrezkoa denean: Medikuntza Fisikoa eta Errehabilitazioa (MFE), Osasun Mentala, Medikuntza Intentsiboa, Genetika, Erradiologia Interbentzionista eta Endoskopia Digestiboa.

Lehen Mailako Arretako Taldearekin koordinatzea funtsezkoa da gaixotasunaren fase guztietan, eta garrantzi berezia hartzen du fase aurreratu-tan arreta etxean ematen denean, arreta aringarrian (fase goiztiarretan hasi behar da) eta bizi amaierako prozesuan.

Estrategian zehaztutako arreta eredia aplikatzen zaie alboko esklerosi amiotrofikoaren diagnostikoa duten pertsona guztiei: balorazio integrala, esku hartze plan integral eta individualizatua definitzea, erreferentziazko espezialista eta ospitale loturako erizaina esleitzea eta zirkuitu espezifikoa gaitzea.

2. Alboko esklerosi amiotrofikoaren diagnostikoa duten pertsonentzako errehabilitazio integral eta unibertsala berma dezan gehienez ere sei hilabeteko epean, % 100eko finantzaketa publiko-arekin, gaixotasunaren prozesu osoan zehar, etxeko nahiz egoitzako errehabilitazio integralaren modalitateak barne.

Medikuntza Fisikoaren eta Errehabilitazioaren zerbitzuko espezialisten indikazio terapeutikotik eta alboko esklerosi amiotrofikoaren diagnostikoa duten pertsona bakoitzarentzat planteatzen dituzten planetatik harago, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuak autonomia pertsonala sustatzeko eta mendekotasuna prebenitzeko programak ere baditu mendekotasuna aitortuta duten pertsona guztientzat, mendekotasun egoera hori eragin duen diagnostikoa gorabehera. Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren katalogoko zerbitzu hori gehienez 6 hilabeteko epean ematen da, legeak ezartzen duen bezala, eta ez du koordainketarik. Era berean, egoitza zentroek, zehazki desgaitasun fisikoa duten pertsonentzako zentroek, arreta fisioterapeutikoa bermatuta dute.

3. Alboko esklerosi amiotrofikoaren diagnostikoa duten pertsona guztien mendekotasun eta desgaitasun mailaren berehalako balorazioa egiten dela berma dezan, eta maila horren berrikuspina egin dezan gehienez ere hiru hilabeteko epean.

Mozio hori onetsi aurretik ere bazegoen lehen-tasunezko balorazio mekanismo bat alboko esklerosi amiotrofikoaren diagnostikoa duten pertsonentzat, bai mendekotasun egoera bai desgaitasun egoera baloratzeko. Diagnostiko

horrekin iristen diren eskaerak lehentasunezko zirkuitu batean txertatzen dira, eta balorazio zentrotik bertatik programatzen dira etorkizuneko berrikuspenak, mendekotasun maila gaixotasunaren bila-kaerara egokitzeko, Osasun Departamentuak bidalitako txostenak kontuan hartuta.

4. Berma dezan finantzaketa publikoa ematen dela teknika aurreratuko laguntzetarako, aireztapen egokiko sistema alternatiboetarako, garabi, ohe artikulatu, eskaren aurkako koltxo, komuneko aulki beso-euskarridun eta komunikazio gailu alternatibo eta handigarrietarako, begi irakurgailuetarako edo alboko esklerosi amiotrofikoaren diagnostikoa duten pertsonen bizi kalitatea errazteko bestelako premia batzuetarako, berariazko zirkuitu eta guzti alboko esklerosi amiotrofikoa duen inork ez dezan zailtasunik eduki laguntza horiek eskuratzeko gastuak itzultzeko atzerapenak direla-eta. Neurri hori sei hilabetean bermatu beharko da.

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuak finantzatzen dituen laguntza teknikoei dagokienez, laguntza teknikoan edo laguntza produktuen deialdi bat dago 2021etik, baina ez dago zirkuitu espezifikorik alboko esklerosi amiotrofikoaren diagnostikoa duten pertsonentzat. 2022an, MRR funtsen laguntzaz, laguntza produktu teknologikoak erosteko deialdi bat argitaratu zen, eta 2023ra arte luzatu da, baina ez dago zirkuitu espezifikorik alboko esklerosi amiotrofikoa duten pertsonentzat.

Horren haritik, 2022tik aurrera, komunikaziorako begi irakurgailuak finantzatzen dira, bai eta horretarako ekipamendu informatikoa ere. Ekipamendu horiek NOUtik ematen zaizkie behar dituzten pertsoneri.

5. Diru publikoarekin finantzatu ditzan, sei hilabeteko epean gehienez ere, alboko esklerosi amiotrofikoaren diagnostikoa duten pertsonentzako etxebizitzak eta ibilgailuak egokitzeko eta aldi baterako etxebizitza eta ibilgailu egokituak eskuratzeko laguntzak.

2022an, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuaren deialdi bat argitaratu zen, MRR funtsekin finantzatu, etxebizitzan irisgarritasuna hobetzeko, mugitzeko zailtasunak dituzten pertsona guztientzat. Halaber, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuaren laguntzak daude etxebizitzak egokitzeko. Eskubide Sozialetako Departamentuak egindako MRR Funtsen 2022ko deialdian, mugikortasunerako laguntza produktuak nahiz ibilgailuentzako osagarriak eta egokitzapenak finantzatzea aurreikusten zen. Nolanahi ere,

departamentu honen ustez, irisgarritasun neurriak modu unibertsalean planteatu behar dira irisgarritasun zailtasunak dituzten pertsona guztientzat, baina izapidetze mekanismo arinagoak planteatzen ahal dira kolektibo espezifikoentzat, hala nola alboko esklerosi amiotrofikoa duten pertsonentzat.

6. Plazak berma ditzan egoitza zentroetan pertsona kaltetuak etxean egon ezin direnean, bermatuta langileek alboko esklerosi amiotrofikoaren diagnostikoa duten pertsonak zaintzeko prestakuntza eta eskarmentua dutela.

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuak egoitza plazak ditu desgaitasun fisikoa duten pertsonentzat, horien mendekotasun maila II. edo III. gradukoa denean. Era berean, larrialdiko ospitaleratzea ahalbidetzen duten mekanismoak ditu, egoerak hala eskatzen badu. Departamentuaren proposamena da Osasun Departamentuaren eta Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuaren artean koordinatzeko bideak hobetzea, pertsona bakoitzak dituen premia espezifikoari baliabide konbentzionaletan erantzun ahal izateko, beharrezkoak diren banakako laguntza neurriekin, gaur egun bezala.

7. Zaintzaileei babesa eta prestakuntza neurriak berma diezazkien.

Zaintzailearentzako Arreta Plana definituta dago. Zaintzaile rola hobeto betetzeko dituen ezagutzei eta gaikuntzari buruzko premiak baloratu eta horiei konponbidea ematea jasotzen ditu, baita bere burua zaintzeko dituen premiak baloratu eta horietan esku hartzea ere.

“Besteak zaintzea, norbera zaintzea” eskuliburu erabiltzen da material lagungarri gisa: <https://www.navarra.es/NR/rdonlyres/141DE43C-01E8-487C-B4A0-676E4DA5C1AA/368142/Folleto-ZAINTZEA2016.pdf>

8. Laguntza psikologikoa eta bidelaguntasun emozionala berma diezazkien alboko esklerosi amiotrofikoak jotako pertsoneri haien bizitzaren bukaera partean, bai aldi hori ospitale edo egoitzan pasatzen dutenei bai beren etxetan ematen dutenei, ziurtaturik zaintza aringarriak eta bestelako neurri batzuk, beharrezkoak direnak heriotzara hurreratzeko moduari buruzko erabakia mamitzeko.

Diziplina anitzeko unitateko taldeak aldizkako bilerak egiten ditu, eta, horietan, beharrezkoa bada, APET (psikologoa) edo EAET (aringarria) etxeko arreta aktibatzea erabakitzen da, modu indibidualizatuan. Pazientearekin/familiarekin harremana lehen mailako arretako medikuaren bidez ezartzen da. Mediku horrek, lehen mailako arretako gainera-

ko taldearekin batera, etxeko zaintzetan parte hartzen du. Laguntza zerbitzu gisa, etxeko ospitalizazioa aktibatzeak aukera ere badago.

“Gaixotasun kroniko ez-onkologiko aurreratutako artatzeko ereduak” ere kasu horietan aplikatzen da, eta hasierako faseetatik erabakiak alde aurretik/modu partekatuan planifikatzen hasten da (literatura anglosaxoian, advance care planning).

9. Aitor dezan Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Alboko Esklerosi Amiotrofikoaren diziplinaniztun unitateko profesionalak eginiko lana, bai eta ANELA-Alboko Esklerosi Amiotrofikoaren Nafarroako Elkartearena ere, eta alboko esklerosi amiotrofikoa duten pazienteen nahiz haien familien arretan eta zaintzan laguntzen duten pertsona guztiena.

NOUko alboko esklerosi amiotrofikoaren diziplina anitzeko unitatea arlo hauetako profesionalak osatzen dute: Neurologia, Erizaintza, Gizarte Lana, Nutrizioa, Pneumologia, Etxeko Arretako Euskarri Taldea (EAET), Arreta Psikosozialeko Euskarri Taldea (APET) eta Neurofisiologia. Horrez gain, zerbitzu hauen laguntza dute, beharrezkoa denean: Medikuntza Fisikoa eta Errehabilitazioa (MFE), Medikuntza Intentsiboa, Genetika, Erradiologia Interbentzionista eta Endoskopia Digestiboa.

Paziente horien jarraipena Lehen Mailako Arretako Taldeko profesionalekin koordinatuta egin behar da.

Profesional horiek guztiek, ANELA-Alboko Esklerosi Amiotrofikoaren Nafarroako Elkartea osatzen duten pertsonak eta pazienteen eta haien senideen zaintzan eta arretan inplikaturik dauden pertsona guztiek bezala, Nafarroako Gobernuak osasun estamentu guztien aitortza dute haien lanari dagokionez.

10. Koordinazioa bultzatzea dezan Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko alboko esklerosi amiotrofikoaren diziplina anitzeko unitatearen eta ANELA-Alboko Esklerosi Amiotrofikoaren Nafarroako Elkartearen artean.

ANELA-Alboko Esklerosi Amiotrofikoaren Nafarroako Elkartea bere oinarrietan diogen bezala, pazienteen erakundea da, elkarte izaera pribatu eta iraunkorrekoa, estilo demokratikokoa eta irabazi asmorik gabekoa. Alboko esklerosi amiotrofikoa duten pertsonen eta haien senideen bizi kalitatea hobetzeko lan egiten du. Beraz, NOUko alboko esklerosi amiotrofikoaren diziplina anitzeko unitateak bezalaxe, alboko esklerosi amiotrofikoaren diagnostikoa duten pazienteen bizi kalitatea hobetzea da helburua, eta, beraz, hainbat neurri-

tan koordinazioaren eta partaidetzaren alde egiten da, hala nola hedapenean, alboko esklerosi amiotrofikoaren informazioa zabaltzean eta horren inguruko ikerketa sustatzean. Urtean 1-2 bilera egiten dira, unitatearen eta elkartearen artean. Bertan, gaixotasunaren aurrerapenei buruzko informazioa eman eta zabaltzen da.

11. Tratamendu berriei buruzko ikerketan eta saiakuntza klinikoetan inberti dezan.

NOUk ikertzaile liderrekin sustatzen du ikerketa, esaterako, NOUko neurona motorraren gaixotasunen ikerketa taldearekin, eta ikerketa lankidetzak bultzatzen ditu, adibidez, Navarrabiomed ikerketa biomedikoko zentroarekin —zentro horrek arrakasta izan du alboko esklerosi amiotrofikoa ardatz duten ikerketetan eta saiakuntza klinikoetan—. Alboko Esklerosi Amiotrofikoaren Nafarroako Elkartea hitzarmena sinatu zuen Navarrabiomed-FMSrekin, gaixotasunaren ikerketa bultzatzeko eta dibulgaziorako konpromisoa hartzeko.

12. Doitasunezko medikuntza pertsonalizatuaren programan jaso ditzan gaixotasun neurodegeneratiboak, ahalbidetzearren ahalik denbora laburrenean egitea prozesu diagnostikoa eta taxutzea gaixo bakoitzarentzako tratamendurik aproposenerako plana.

Doitasunezko medikuntza pertsonalizatuaren bidez, prebentzio, diagnostiko eta terapia pertsonalizatu eraginkorragoa eta seguruagoa izaten ahal da. Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan aplikatzen da hori, eta espezialitate eta profesional asko daude tartean.

Medikuntza pertsonalizatuak pazientearengan jartzen du arreta, eta ez soilik patologian. Pertsona bakoitzak gaixotasuna modu desberdinean bizi eta tratamenduari modu desberdinean erantzuten ahal dionez, garrantzitsua da paziente bakoitza banakoaren ezaugarrien arabera artatzea.

Banakoaren ezaugarrien artean daude geneak, osasun egoera, bizimodua, adina, sexua eta inguruabar pertsonalak. Hori dela-eta, alternatiba terapeutikoei askotariko efizientzia izaten ahal dute pazientearen arabera.

Osasun Zerbitzu Nazionalaren zerbitzu zorroan zehaztapen genetikoa jasotzen dira laguntza eskaintzaren barruan, eta eskaintza hori Osasun Sistema Nazionalaren Proba Genetiko eta Genomikoen Katalogo Komunean kontsultatzen ahal da. NOUn egiten direnetan, gaixotasun neuromuskularraren eta neurologikoen barruan, alboko esklerosi amiotrofikoa dago, dementzia frontotemporalarekin.

Hori guztia jakinarazten dizugu, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-24/PES-00105. Galdera, Gizain fundazio publikoan ordainsarien igoera gelditzeko arrazoiei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier Arza Porrás jaunak Gizain fundazio publikoan ordainsarien igoera gelditzeko arrazoiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko martxoaren 1eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrás jaunak 11-24/PES-00105 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, honako honi buruz:

- Zeintzuk dira Gizain fundazio publikoan ordainsarien igoera gelditzeko arrazoi politiko, ekonomiko edo juridikoak?

Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Gizain fundazioko langileen soldata baldintzen hobekuntza helburu legitimoa da eta Departamentuak, gainera, horren alde egiten du. Hain zuzen ere, fundazioko gerenteak negoziazioak egin ditu langileen sindikatu ordezkariarekin azken hila-beteotan, eta Departamentuari ordainsari gehikuntzarako zentzuzko proposamena helarazi dio, Administrazio langileen eta FUNDAPAKO langileen artean dagoen arrakala pixkanaka murrizteko, eta enpresa batzordeak adierazi du

prest dagoela horren ildotik proposamena onartzeko.

Premisa modura, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 21. artikuluan honako hau ezartzen da: “Ordainsarietarako proposatutako igoera, Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean langileei ordaintzeko urtean-urtean finkatzen den muga gainditu eta, orokorrean, muga horretatik gorako soldata-masa handitzea badakar, ezin izango da onartu”.

Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutu hau Nafarroako Foru Komunitateari aplikatu dakiok, Konstituzioaren 149.1.18 artikuluan eta 1. xedapen gehigarrian eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 2. xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

Urtero, Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak sektore publikoko langileei ordainsari gehikuntzak onesteko aukera mugatzen du; horien artean fundazio publikoetako langileak ere barne hartzen dira (2023ko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legearen 19.Bat.h art.).

Hala, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legearen 19.Bi artikulua —langileentzako aplikagarria, horren Lau.1 apartatuan ezarritakoaren arabera— langile horien ordainsariak 2023an izan zezaketen gehikuntza orokorra ezarri zuen; zati finko bat eta zati aldakor bat ezarri zen (BPGaren eta KPIaren bilakaerarekin lotutakoa).

Gehikuntza hori, bestalde, Espainiako Gobernuak, CCOO eta UGTk 2022ko urrian sinatutako “XXI. menderako Administrazio baterako esparru

akordioan” onartutako konpromisoen ondorio da; akordio horretan % 9,5erainoko soldata igoera bat jasotzen da 2022-2024 aldirako, zati finkoaren eta aldagarriaren artean (% 3,5 2022an, % 3,5 2023an eta % 2,5 2024an). Hortaz, aurreikus daiteke 2024ko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak, edo lege maila duen beste arau batek, urte horretarako % 2ko gehikuntza bat jasotzea, gehienez % 2,5era hedatu daitekeena aipaturiko esparru akordioan hitzartutako aldagaia beteko balitz (2022-2024 urteetako Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuaren aldagaiaren baturak aldi horietan pilatutako ordainsari gehikuntza finkoa gainditzea, % 8).

Adierazi beharra dago Estatuko Aurrekontu Orokorren Legearen aipaturiko 19. artikulua oinarritzko izaera duela, izan ere, hamaikagarren apartatuak honako hau ezartzen du beren-beregi: “artikulu honek oinarritzko izaera dute eta Konstituzioko 149.1.13.a eta 156.1 artikuluen babesean ematen da”; hortaz, autonomia erkidegoek nahitaez bete behar dute. Ordainsari gehikuntzei dagokienez, muga horiek oinarritzekoak direla bermatu du Konstituzio Auzitegiak. Izan ere, haren doktrinaren arabera, langileen gastuei eusteko neurriak Espainiako Konstituzioaren 149.1.13 artikuluko jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriei eta koordinazioen eskumenen esparruan kokatzen dira (besteak beste, Konstituzio Auzitegiaren 94/2015 Epaia, 2015eko maiatzaren 14koa).

Ordainsariak muga horretatik gora gehitzeko debeku hori indartuz, aipatutako 19. artikulua Zortzi apartatua honako hau ezartzen da: “Artikulu honetan finkatutakoak baino ordainsari gehikuntza handiagoak dakartzaten akordio, hitzarmen edo itunek dagokion egokitzapena izan beharko

dute, eta horren aurka doazen klausulak aplikaezin bihurtuko dira”.

Sektore publikoko langileen ordainsariak aipatutako apartatuetan ezarritako mugetatik harago gehitzeko aukera bakarria aipatutako 19. artikulua Zazpi apartatua dago (agindu hori urtero sartzen da Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean, eta, aurreikuspenen arabera, 2024ko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean sartuko da); horren arabera: “Aurreko paragrafoetan xedatutakoak ez die kalterik egingo ordainsarien egokitzapenei; egokitzapenok ezinbestekoak baldin badira lanpostuen edukiagatik, programa bakoitzari esleitutako langile kopurua aldatzeagatik edo programarako finkatutako helburuen lorpen mailagatik”. Hala ere, Nafarroako Gobernu Kontu Hartzailletza Nagusiko Zuzendaritza Nagusiari kontsulta egin ondoren, hark baieztatu du Gizain Fundazio langileen kasuan ezin dela adostu sektore publikoko langileentzat ezarritako gehikuntza orokorra baino handiagoa izatea.

Beraz, azaldutakoaren arabera, eta Kontu Hartzailletza Nagusiaren jarraibideekin bat etorritik, GIZAIN fundazioko langileen ordainsariak 2024an izan lezaketen gehieneko gehikuntza Estatuak sektore publiko osorako duena izanen da, % 2 finkoa, aurreikuspenen arabera, eta % 2,5era gehitu ahal izanen da lehen deskribatutako aldagaia betez gero.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko martxoaren 18an

Es kubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-24/PES-00106. Galdera, Nafarroako Gobernu departamentuek edo/eta enpresa publikoek enpresa jakin batzuekin kontratu-harremanik izan ote duten jakitekoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak Nafarroako Gobernu departamentuek edo/eta enpresa publikoek enpresa jakin batzuekin kontratu-harremanik izan ote duten jakiteko egindako galderaren erantzuna,

Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko martxoaren 1eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak idatzizko eskaera egin du, jakiteko ea Foru Komunitateak kontratu harremanik izan duen, Nafarroako Gobernuaren departamentuetako baten edo batzuen nahiz enpresa publikoen bidez, PES-00106 galderan zerrendatzen diren enpresekin. Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

– Ez da inolako kontratu harremanik izan 00106 eskaeran zerrendatzen diren enpresetako batekin ere.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko martxoaren 6an

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak 11-24/PES-00106 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Hona hemen Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horren harira ematen dion informazioa:

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuak ez du inolako kontratu harremanik izan aipatu diren enpresekin.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko martxoaren 5ean

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

Lurralde Kohesiorako kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du, jakiteko ea Nafarroako Gobernuaren departamentuetako baten batek nahiz enpresa publikoek kontratu harremanik izan duten enpresa jakin batzuekin (11-24/PES-00106). Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Lurralde Kohesiorako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Lurralde Kohesiorako Departamentuak ez du inolako kontratu harremanik izan aipatutako enpresetako batekin ere.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez. Horrez gain, datuak babesteko legedian ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan jasotako xedeetarako soilik erabiltzen ahalko da emandako edukia, eta betebeharra egonen da Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoari men egiteko.

Iruñean, 2024ko martxoaren 6an.

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du, jakiteko ea Nafarroako Gobernuaren departamentuetako baten batek nahiz enpresa publikoek kontratu harremanik izan duten enpresa jakin batzuekin (11-24/PES-00106). Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak ez du inolako kontratu harremanik izan aipatutako enpresetako batekin ere.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2024ko martxoaren 6an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-24/PES-00106). Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuak ez du inolako kontratu harremanik izan aipatutako enpresetako batekin ere.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko martxoaren 6an.

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Hezkuntzako kontseilariaren erantzuna

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak 11-24/11-24-PES-00106 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak ematen dion informazioa:

Hezkuntza Departamentuak ez du inolako kontratu harremanik izan aipatutako enpresetako batekin ere.

Iruñean, 2024ko martxoaren 6an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du –2024ko otsailaren 26ko 1664 irteera zenbakia du Nafarroako Parlamentuan–, jakiteko ea Nafarroako Gobernuaren departamentuetako baten batek nahiz enpresa publikoek kontratu harremanik izan duten enpresa jakin batzuekin (11-24/PES-00106). Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Ekonomia eta Ogasun Departamentuan, eta Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoan sartutako enpresetan, ez da inolako kontratu harremanik izan galderan aipatutako enpresetako batekin ere.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko martxoaren 6an.

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak 11-24/PES-00106 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Hona hemen Barne-

ko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak horren harira ematen dion informazioa:

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Zuzendaritza Nagusiei kontsulta egin ostean, jakinarazten dut ez dela inolako kontratu harremanik izan aipatutako enpresetako batekin ere.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko martxoaren 6an.

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria. Amparo López Antelo

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-24/PES-00106). Hona hemen galdera eta Nafarroako Gobernuaren Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Zure ekimenaren harira, jakinarazten da Departamentuak ez duela inolako kontratu harremanik izan aipatutako enpresetako batekin ere.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko martxoaren 6an.

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak 11-24/PES-00106 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Hona hemen Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak horren harira ematen dion informazioa:

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuak jakinarazten du ez duela inolako kontratu harremanik izan honako enpresa hauetako batekin ere: Soluciones de Gestión y Apoyo a Empresas SL, Proyectos Independientes GEMS II SL, Duda Razonable SL, Bussiness City SL, Grupo Aurum Inversiones SL, DeLuxe Fortune SL, Logística Comercial Montelimar SL, Future Factory SL, Brama Capital SL, World Magic In the Village SL, MTM 180 Capital SL, Erromar Soluciones Digitales SL.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko martxoaren 6an.

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak PES-00106 galdera egin du idatziz erantzun dakion. Hona hemen horri buruz ematen den informazioa:

Zure ekimenaren harira, jakinarazten da Departamentuak ez duela inolako kontratu harremanik izan aipatutako enpresetako batekin ere.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko martxoaren 6an.

Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix M^a Taberna Monzón

Osasun kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak 11-24/PES-00106 galdera egin du, idatziz erantzun dakion Hona Nafarroako

Gobernuaren Osasun Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Osasun Departamentuak ez du inolako kontratu harremanik izan aipatu diren enpresekin.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko martxoaren 5ean.

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna

